



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Zallako Udala

Zallako Eguzki egoitzako egonaldi zerbitzua, iraunkorra zein aldi baterakoa, emateko prezio publikoa ezartzeko administrazio prozedura. Hasierako onespena.

Abenduaren 15ean Alkatetzaren 2395/2023 Dekretua eman zen, zeinaren bidez ebartzi baita:

Lehenengoa: Administrazio-prozedura hastea prezio publiko hau finkatzeko:

- Prezio publikoa, Zallako Eguzki Egoitzan egonaldi zerbitzua, iraunkorra zein aldi baterakoa, emateagatik.
- Ordaintzera behartuak: Zallako Eguzki Egoitzako erabiltzaileak, egonaldiaz gozaten badute.
- Zenbatekoa: ehun eta bederatzi euro eta hirurogeita lau zentimo (109,64 euro) egun eta erabiltzaile bakoitzeko, zergak sartu gabe.

Bigarrena: Interesdunei 10 egun balioduneko entzunaldia ematea, egintza argitaratzen denetik hasita.

Hirugarrena: Egintza Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Laugarrena: Egintza Udalaren iragarki oholean argitaratzeko agintzea, espediente osoarekin batera.

Zallan, 2023ko abenduaren 26an. — Alkatea, Unai Diago Santamarina